

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

“Lukiano, Aperregi eta Gillerna herrietako (Araba) saneamendu eta hondakin urak arazteko proiektu berrikusia, 2. fasea” -k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2023ko abenduaren 26an egindako bilkuran, 888/2023 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

““Lukiano, Aperregi eta Gillernako (Araba) saneamendu eta hondakin urak arazteko proiektu berrikusia (2. fasea)” jendurrean jartzeko aldiari aurkeztutako alegazioen erantzuna. Eragindako ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrendatik 26 finka desafektatzea. Behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra deklaratzeko. Presazko okupazioa deklaratzeko. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 9ko 252/2023 Erabakiaren bidez, “Lukiano, Aperregi eta Gillernako (Araba) saneamendu eta hondakin urak arazteko proiektu berrikusia (2. fasea)” behin-behinean onetsi zen, bai eta proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda eta jendurrean jartzea ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 26ko 587/2023 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi da “Lukiano, Aperregi eta Gillernako (Araba) saneamendu eta hondakin urak arazteko proiektu berrikusia (2. fasea).”

Proiektua jendurrean egon den aldiari idatzizko alegazioak aurkeztu dituzte espedienteko 9/000, 15/000, 16/000, 16/000 eta 17/000 finken titularrek, bai eta Ametzaga Zuiako Administrazio Batzarraren lehendakariak ere, eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak aipatutako idazki horien gaineko txostenak egin eta Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak onetsi ondoren, bere egiten ditu gobernu kontseilu honek; horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileei igorriko zaizkie, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Aurreko izapidea bete ondoren, bidezkoa da, alde batetik, 26 finka behin-behineko zerrendatik desafektatzea, Ametzaga Zuiako Administrazio Batzarrak aurkeztutako alegazioa baiesteak hasieran aurreikusitako afektazioa ezabatu duelako, eta, bestetik, proiektu honek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea, aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna kontuan hartuta: trazadura aldatzea erdiko tarte batean eta eroanbidearen amaieran; hainbat finkatan okupatu beharreko azalerak aldatzea; eragindako finken titulartasuna aldatzea Vitoria-Gasteizko 1 zenbakiko Jabetza Erregistroak emandako jabariaren eta kargen ziurtagirien arabera; eta, desjabetze espedienteko 9 eta 15 finken egungo aprobetxamenduak aldatzea.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adierazi behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espediente Nahitazko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela, eta, ondorioz, okupazioa presakoa dela adierazi behar dela. Alde horretatik, Ingurumen

eta Hirigintza Zuzendaritzak jakinarazten du, orografia dela-eta, Gillernak bi arazketa sistema independente dituela, biak ala biak hobi septikoetan oinarrituta. Hobi horiek Baia ibaiaren inguruetatik eta ibaiadarretatik igarotzen diren erreketara isurtzen dituzte urak. Baia ibaia Arabako zona babestuen inbentarioan sartuta dago, ES2110006 Baia Ibaia KBE gisa.

Arazketa sistema horiek 30 urte baino gehiago dituzte, arazketa ahalmen eskasa dute eta ez dituzte betetzen indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen gehieneko isurketa parametroak. Hori dela eta, une honetan kolektore bat eraikitzea planteatzen da, grabitatearen bidez herri-gune horretako hondakin urak Ametzaga Zuiako ponpaketarekin konektatuz, zeina, era berean, Bitoriano araztegiraino iristen baita.

Era horretan, egungo isurketak ezabatuko dira, Gillernako hondakin urak Bitoriano hondakin uren araztegian (HUA) hobeto tratatuko direla bermatuko da arazketa sistema eraginkorragoa baita, efluentearen kalitatea hobetuko da eta, ondorioz, hobi septikoekin gaur egun dagoen osasun publikoko arrisku egoera eta ingurumen arazoa konponduko dira.

Premiazkotzat jotzeko izapiderako, Foru Gobernu Kontseiluak foru erabakia hartu behar du, bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 46 1.b) artikuluan xedatutakoarekin, bai eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin ere.

Eraginpeko ondasun eta eskubideak desjabetzeko aurrekontua 21.900,03 euro da, Desjabetze Atalak jakinarazi duenez.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du proiektuaren xede den herrilana proiektatu eta gauzatzeko, honako hauek xedatutakoari jarraituz: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 31.2 a) eta 36. artikulua; toki araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanen azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7 a.10 artikulua.

Eskumen hori egikaritzeko, foru aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 2.1 artikuluan. Era berean, adierazi behar da erakunde honen barne eremuan Foru Gobernu Kontseilua dela organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta horiek okupatu beharra onesteko, hala xedatzen baitute honako hauek: Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Lege Araubidearen martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.1.c).7 artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarria.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den aurrekontu kreditua badagoela jaso baita.

Horregatik, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak eta Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. Erantzutea "Lukiano, Aperregi eta Gillernako (Araba) saneamendu eta hondakin urak arazteko proiektu berrikusiak (2. fasea)" eragindako ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrenda jendaurrean egon den aldian aurkeztutako alegazioei, horiek baietsiz edo ezetsiz Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak egindako txostenaren arabera.

Bigarrena. 26 finka desfektatzea "Lukiano, Aperregi eta Gillernako (Araba) saneamendu eta hondakin urak arazteko proiektu berrikusiak (2. fasea)" eragindako ondasun eta eskubideen behin-behineko zerrendatik.

Hirugarrena. Onestea proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, zeina erabaki honen eranskinean jaso baita.

Laugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeari begira.

Bosgarrena. Presazkotzat jotzea erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunen eta eskubideen okupazioa eta, hori dela eta, desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 52. artikuluan xedatzen duen presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Seigarrena. 21.900,03 euroko zenbatekoa esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontuko "50106. G/453501/60000500 Desjabetze hidraulikoak" partidaren kontura, 2024ko multzoan, eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Zazpigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak I. eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta zorpekin erreferentziaren kontura. Zenbateko hori ordainduko da Desjabetze Atalaren buruaren proposamen txostena aurkeztu eta gero, eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Zortzigarrena. Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2019rako Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauaren 15. artikulua.

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtoa aurkez dakioko organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Zuiako Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 9a

Bide Azpiegituren zuzendaria
MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila
 Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias

Arabako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Álava

ERANSKINA / ANEXO - PROIEKTUA / PROYECTO
Lukiano, Aperregi eta Gillerna herrietako (Araba) saneamendu eta hondakin urak arazteko proiektu berrikusia, 2. fasea
Proyecto revisado del saneamiento y depuración de aguas residuales de las localidades de Lukiano, Aperregi y Gillerna (Álava) - 2ª Fase

Udal Mugartea / Término Municipal: ZUJIA

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m²			EGUNA	ORDUA	Esp./Expte. 2023/4
		POLÍGONO	LURSAILA		BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	ZORTASUNA (Saneamendu akueduktua 3m)			
		DATOS CATASTRALES			SUPERFICIE AFECTADA m²		SERVIDUMBRE (Acueducto de saneamiento 3m)			
Nº FINCA	TITULAR	POLÍGONO	PARCELA	APROVECHAMIENTO	DEFINITIVA	TEMPORAL	DÍA	HORA		
12	OBISPADO DE VITORIA IGLESIA CATÓLICA PARROQUIA GILLERNA	1	999	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	304	61	29/01/2024	10:00	
25	ZUBIAUR OCHOA DE ECHAGUEN, MARGARITA	1	1031	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	4	109	14	29/01/2024	10:45	
21	URIARTE URIARTE, NATIVIDAD	1	976	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	4	470	91	29/01/2024	12:15	
1	CENDEGUI ELEJALDE, M.BEGOÑA CENDEGUI ELEJALDE, M.PURIFICACION CENDEGUI ELEJALDE, ASUNCION CENDEGUI URCELAY, INIGO ZENDEGI URZELAI, XABIER	1	931	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	8	1002	243	30/01/2024	10:00	
11	CENDEGUI ELEJALDE, M.BEGOÑA CENDEGUI ELEJALDE, M.PURIFICACION CENDEGUI ELEJALDE, ASUNCION CENDEGUI URCELAY, INIGO ZENDEGI URZELAI, XABIER	1	997	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	16	0	30/01/2024	10:00	

3	BERNAR EULATE, ANA MARIA BERNAR EULATE, GONZALO BERNAR EULATE, ALVARO	1	2352	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	12	0	30/01/2024	11:00
5	BERNAR EULATE, ANA MARIA BERNAR EULATE, GONZALO BERNAR EULATE, ALVARO	1	2351	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	227	48	30/01/2024	11:00
19	BASABE MENDIETA, ANA MARIA	1	974	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	4	1280	266	30/01/2024	12:30
7	GONZALEZ BURUCHAGA, IGNACIO JAVIER GONZALEZ IRISARRI, IMANOL KEPA GONZALEZ IRISARRI, AMAYA BURUCHAGA EGUILUZ, DIONISIA	1	1002	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	651	129	30/01/2024	13:15
18	IBAÑEZ DE ELEJALDE LOYO, J.MARIA IBARROLA ALDAY, EDURNE	1	984	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	35	0	31/01/2024	10:00
20	IBAÑEZ DE ELEJALDE LOYO, JOSE MARIA IBARROLA ALDAY, EDURNE	1	975	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	4	1587	314	31/01/2024	10:00
16	IBAÑEZ DE ELEJALDE LOYO, J.MARIA	1	992	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	2148	225	31/01/2024	10:45
17	IBAÑEZ DE ELEJALDE LOYO, J.MARIA	1	985	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	2757	544	31/01/2024	10:45
24	FERNANDEZ FERNANDEZ DE TROCONIZ, M.LUISA	1	979	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	4	1381,73	146	31/01/2024	12:00
6	ELEJALDE OCHOA, JESUS	1	2345	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	4	1387	274	31/01/2024	12:45
2	LACONCHA ORTIZ DE PINEDO, M.ANGELES	1	2349	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	927	137	01/02/2024	10:00
4	LACONCHA ORTIZ DE PINEDO, M.ANGELES	1	2350	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	161,74	0	01/02/2024	10:00
8	ITURRATE ORTIZ DE ZARATE, M.BEGOÑA	1	2341	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	4	117	18	01/02/2024	11:00
10	JUNTA ADMINISTRATIVA DE GILLERNA	1	1000	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	386	80	01/02/2024	12:15
13	PINEDO MARTINEZ DE LAPERA, M.JULIANA PINEDO MARTINEZ DE LAPERA, M. PURIFICACION PINEDO MARTINEZ DE LAPERA, RUFINO PINEDO MARTINEZ DE LAPERA, MARCELINO PINEDO MARTINEZ DE LAPERA, LUIS PINEDO MARTINEZ DE LAPERA, M.ASUNCION PINEDO MARTINEZ DE LAPERA, FELIX PINEDO MARTINEZ DE LAPERA, J. ANTONIO	1	998	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	442	88	01/02/2024	13:00

22	URIARTE URIARTE, LEANDRO	1	977	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	521	104	02/02/2024	10:00
14	MESANZA SALAZAR, J.LUIS URIARTE ITURRATE, YOLANDA	1	994	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	577	115	02/02/2024	10:45
23	MUÑOZ SORIANO, J.MIGUEL	1	978	Lehorreko laborea / Tierra de labor secano	0	826	165	02/02/2024	11:15
9	URRUTIA AGUINACO, JESUS RUEDA HIERRO, MARIA ASUNCION	1	1001	Zelaiak / Pradera	29	1687	343	02/02/2024	12:15
15	GANZABAL BURUCHAGA, JESUS ANGEL	1	993	Pinudia / Pinar	4	1698	336	02/02/2024	13:00